



HAUTAKETA PROZESUA: OHIKO PROZESUA. 2022KO URRIAREN 20KO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA. (2022ko ABENDUAREN 22ko EHAA)

SARRERA MOTA: OROKORRA

DEIALDI ESPEZIFIKOA: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN ESKALA (Ohiko prozesua).

OPOSIZIO FASEAREN BEHIN BETIKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHANAREN ERABAKIA.

8.5.1. oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera, Administrari laguntzaileen eskalaren prozesuaren (Ohiko prozesua) hautaketa-prozesurako oposizio fasearen probaren behin-behineko emaitzen aurkako aurkezturiko erreklamazioak aztertu ondoren, epaimahai honek honako **ERABAKI HAUEK HARTU DITU:**

Lehenengoa: I. Eranskinean ezartzen denez, jasotako erreklamazioei erantzutea.

Bigarrena: erreklamazioetako bat onartu denez, erreklamaziogilearen azterketa berriro baloratzea; emaitzazko nota oposizio-faseko behin betikotzat hartuko da.

Hirugarrena: Gainerako izangaien probaren balorazioa behin betikotzat hartzea, bai txanda irekian, bai desgaitasuna duten pertsonen txandan, II. eranskinean erantsitako oposizio-faseko behin betiko puntuazioen zerrendak osatuz. Zerrenda horiek lortutako puntuazioaren arabera ordenatzen dira, handienetik txikienera.

Laugarrena: Zerrenda horiek UPV/EHUren enplegu-atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp) argitaratzeko agintzea, izangaien kontsultatu ahal izan ditzaten.

Leioan, sinadura elektronikoan agertzen den datan.

EPAIMAHAIAREN BURUA